Bixente Serrano Izko

Gure estratega sendoa

Grezia bezain zaharra, omen, demokrazia, baina Grezian hain zuzen "demokrazia berria" planteatzen duen alderdi batek irabazi berri ditu hauteskundeak. Jakinik gutxi gorabehera zer den demokrazia, susmagarri, guztiz, egiten zaigu denoi demokrazia berriaren ideia. Eta hala da greziar kasuan, kontserbadoreen irtenbidea baita: jakina denez, demokrazia, bere soilean, inoiz ez da inongo belarri kontserbadoreetan ongi sartu, eta zaharberritu behar dute kontzeptua: demokrazia, alegia, edo bateragarri da ekonomiaren tiraniarekin edo ez da demokrazia, Europan ez dago lekurik bankuen jabeen mendean jartzen ez den demokraziarentzat. Horratx demokrazia berria. Ekarpen izugarri sakona, iraultzailea, pentsamolde politikoaren historiara. Zeinarekin bat egiten duen PASOKek, greziar sozialdemokraziak, berau ere beti berritzaile, beti iraultzaile ideien arloan, denok dakigun bezala.

Ez zaio atzetik ibiltzen PSN, Roberto Jimenez estratega politiko handiaren eskutik. Formula asko saiatu du buruargi honek (l)astargia hartu zuenetik. Lehenbizi, Sanz demokrata berriaren gutxiengo parlamentarioari sostengua ematen, nondik eta gehiengoa zen oposizio batetik, nola eta oposizioko gehiengoari bridak jarriz, nafar demokrata berriek gobernatu ahal zezaten; zaila ulertzeko demokrata zaharregiak bide ziren PSNren boto-emaile tradizionalentzat: ikasle bihurriak inondik ere, eta nota txarragoak oparitu zizkioten Jimenezi hurrengo azterketetan.

Baina ez zuen amore eman gure sozialdemokrata berritzaileak, eta koska bat gehiago ematen saiatu da orain berri arte: are demokrata berriagoa den Barcinaren gobernuan sartzen, alegia, berriro ere oposizio antzura kondenatuz parlamentuan gehiengo osoa zuten demokrata zaharrak. Emaitzak, dakizkigunak: hanka egin behar izan du demokrazia berria islatzen duen UPNrekiko gobernu kidetzatik. Hanka egin, baina horixe herren: ez du bere kabuz egin, bota egin du amandreak.

Denak ematen du aditzera bertze formula berriago bat saiatuko duela PSNk hemendik aurrera: benetako oposizioa egin, bidera-



Josu Santesteban

tu, baina hauteskunde berrietara behartu gabe. Oposizio tinkoa, irmoa, baina erantzulea, demokrazia berriaren alde beti ere. Zulo ekonomiko sakonetik ateratzeko demokrata berriek, bankuen bozeramaileek, jorratu nahi dituzten bideetan erantzule izan nahi ez, parlamentuan bide horiek itxiz, omen, baina bideginei lanpostuak kendu gabe. Denok dakigu: bideginek xendra dezente asko jorra ditzakete parlamentua saihestuz; hainbat murrizketa sozial berri egin dezakete dekretuz, parlamentuak izan gabe zertan eztabaidatu. Baina gehiago egin behar dute euren dogmatismo neoliberaletik, printzipioz erabaki parlamentariorik behar ez duten bertze murrizketak egiten baitituzte, adibidez. Bide horiek guztiz ixteko prest egonen al da Roberto Jimenez, jakinik bideginei lanpostua kentzea suposatuko lukeela, hauteskunde berriak suposatuko lituzkeela?

Europan ez dago lekurik bankuen jabeen mendean jartzen ez den demokraziarentzat. Horratx demokrazia berria. Zeinarekin bat egiten duen PASOKek. Ez zaio atzetik ibiltzen PSN, Roberto Jimenez estratega politiko handiaren eskutik

Lehen aldiz foru hauteskundeak gertatuko lirateke Estatu eremuko udaletakoen itzalpetik kanpo, beti UPN-PPri eta PSNri hain onuragarria gertatu zaien itzalpetik kanpo. Eta baliteke EAEkoekin batera, hor nonbait, egin behar izatea. Orain arte Roberto Jimenezek bere maisulanagatik espero ditzakeen nota jaitsierez gain, Patxi Lopezen efektu ez oso prometagarria hegan ibil daiteke Nafarroan ere. Zer sorpresa berri, zer saio berri eskainiko dizkigu demokrazia berriaren PSNko estratega sendo honek, ataka horretan bere burua ez ikusteko? ■